

Ekai Txapartegi

FILOSOFIAN DOKTORE

## Ez gara besteak bezalakoak

Z

iur ezetz. Gu txakolina gara. Baina zer justifikatzen du horrek? Helburua besteengandik bereiztea bada, txapel horia jarrita atera gintezke kalera, txirula joz. Erraza da besteak bezalakoak ez izatea. Meritu gabea.

Frantziak ijitoak kanporatzen ditu, Espainian Rajoik aginduko du. Gu ez gara haiek bezalakoak, hemen gehiengoak ez du hori nahi. Bai, ona, ados. Horretan bereizteak badauka meritua. Baina ez besteak bezalakoak ez garelako, balio desberdinak ditugulako baizik. Gure balioek erakusten dute, badute, gure desberdintasunaren balioa.

Mondragones tabernako Mirenek semeari lorea oparitu zion, omenaldia egin genion egunean: “Seme ona daukat, ez dio inori kalterik egingo bera hobetzeko”. Mirenentzat garrantzitsua ez da bere semea desberdina izatea, norberaren mesederako hirugarren bati kalterik ez egitea baizik. Meritua bere semeak balioak izateak du. Mirenek ez du txapel horia jantzi beharrik desberdina sentitzeko. Nahikoa du lehia kapitalistak dominatzen duen gizartean semeari begiratzea.

“Gu ez gara besteak bezalakoak” sarri samar entzun dut azkenaldian. Eta urduri jartzen nau. Esaldi hutsa iruditzen zait, esanahirik ez dauka-



EGOTZ LASA



‘Gu ez gara besteak bezalakoak’  
sarri samar entzun dut  
azkenaldian. Eta urduri jartzen  
nau. Esaldi hutsa iruditzen zait,  
esanahirik ez daukana  
betetzen ez bada



na betetzen ez bada. Proposamen baten kontra “gu ez gara besteak bezalakoak” entzuten dudanean, horrela, hutsik, norengandik edo zerk bereizten gaituen zehaztu gabe, bizkarra eman eta korrika hasten naiz. Ziriren bat datorrenaren zeinua da. Iruzurraren prelude argia.

Ez gaizki ulertu. Nik ere, esaterako, Gipuzkoan zementuzko proiektu erraldoi guztiak bertan behera uzteko eskatzen dut. Baina ez horrek desberdindu egingo gaituela uste dudalako, erraustegiak eta kanpoportuak testuinguru honetan zentzurik ez daukatelako baizik.

Ideologiak bereizten gaitu, eta nor-tasunak; izaera eta amets kolektiboek ere bai. Desberdintasun handienak balioen mailan egon litezke agian. Baina, hain desberdinak bagara, zertarako egin desberdintasunaz irizpide normatibo nagusia? Jarduna esaldi horren inguruan antolatzen dutenak ez ditut ulertzen.

“Ez gara besteak bezalakoak” ohar-tzeko eskatzen dizutenean, badaezpada galdetu zer nahi duten. Zure jardunak “desberdina” izan behar duela esaten dizutenean, agian zeharka esaten ari zaizkizu jarduna eraginkorra, ona, adostua, etorkizuneko... izatea ez dela “desberdina” izatea bezain inportantea. Eta hori hala baldin bada, oi lagun, une horretan egin fit, fit, fit. ■

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



deitzen zieten zaleek: *Los azules*. Urritxe zuten lur zelaia, zanpatua, aldageletarantz etzana, euri aldietan hiru bat errekastoz hornitzen zena jokalarien desesperaziorako. Dozena erdi aldi baino gehiagotan tokatu nintzen Irungo Real Union eta Hernanirekin haien aurkako partidatan. Gogoan dut Astiazaran aurrelaria bertan aritzen zeneko garaia –Amorrortu entrenatzaileak Astiazaran SDA jokalaria izan zuen– eta honek aurkako defentsak jotzea, baloia jotzea adina maite zuela. Zornotza Etxano ere ezagutzen nuen, ordurako ohar-tua nintzen lur bereko bi munduak bizi nituela, aipatu

### Azulak

bikotea Donostiako Realean baino Real Sociedad de San Sebastianen ezagunagoa egin bazen ere. Lehengo astean SDA, Zornotza Etxanoko Sociedad Deportiva de Amorebieta Bigarren B mailara igo da, berrogei bat urte hirugarrenean igaro ondoren. Orain belarrezkoa dute zelaia, Urritxe Barria. Baina oinarritzko gauza batzuek lehen-gotan diraute, azulek *los azules* izaten jarraitzen dute eta Zornotza Etxanoko futbol elkarteak SDA du izena. Horregatik hain zuzen Goierriko Villafranca, Ordizia bilakarazi izanak ematen du poz, eta eredugarriak ez duela beti eredu sortzen pena. Zelai bereko bi mundu. Futbolak ere iraultza behar du. ■